**KULTURA SAILA**

**6548**

EBAZPENA, 2008ko azaroaren 4koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Hizkuntza Politikarako sailburuordearen 2008ko apirilaren 2ko Ebazpenak ezarritako lehen euskara-planaren diseinua ebaluatzeko Balorazio Batzordearen osaketa moldatzen duena, zati batean. Ebazpen horren bidez, 2008an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatutako programen kontura diru-laguntzak emateko modua arautzen duen agindura aurkeztutako eskabideak aztertuko eta ebaluatuko dituen Balorazio Batzordeak izendatu ziren.

2008ko apirilaren 2ko Ebazpenak ebazten duena kontuan izanik, lehen euskara-planaren diseinua baloratzeko balorazio-batzordeari dagokionez, Leire Sagastizabal Bidarte Koordinaziorako Zuzendaritzako teknikaria izendatu zen; borondatezko eszedentzia eskatu ondoren, pertsona hau jada ez da Koordinaziorako Zuzendaritzako teknikaria 2008ko uztailaren 11tik.

Hori dela eta,

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.–*** Moldatzea, zati batean, Ebazpenaren 2.5.1) artikuluan lehen euskara-planaren diseinua baloratzeko izendatutako balorazio-batzordea. Hori dela eta, «Leire Sagastizabal Bidarte» dioen lekuan, «Maitane Izagirre Zubimendi» esatea.

***Bigarrena.–*** Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango du eragina.

Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Kultura sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Bestela, zuzen-zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan bi hilabeteko epean, honako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 4a.

Kultura Sailaren Egitura Organikoa ezartzen duen otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuko lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, Hizkuntza Politikarako sailburuordearen absentziarengatik.

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria,
JOSEBA LOZANO SANTOS.

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

**6548**

RESOLUCIÓN de 4 de noviembre de 2008, del Viceconsejero de Política Lingüística, por la que se modifica, en parte, la composición de la Comisión de Valoración del diseño del primer plan de euskera, establecida por la Resolución de 2 de abril de 2008, del Viceconsejero de Política Lingüística, por la que se nombran las Comisiones de Valoración para el análisis y evaluación de los proyectos acogidos a la convocatoria de subvenciones para el año 2008, para los programas gestionados por la Viceconsejería de Política Lingüística.

En cumplimiento de lo establecido por la Resolución de 2 de abril de 2008, por lo que respecta a la Comisión de Valoración del diseño del primer plan de euskera, se nombró a Leire Sagastizabal Bidarte, técnico de la Dirección de Coordinación; tras su solicitud de excedencia voluntaria, esta persona ya no forma parte de la Dirección de Coordinación desde el 11 de julio de 2008.

Por todo ello,

RESUELVO:

***Primero.–*** Modificar, en parte, la composición de la Comisión de Valoración establecida en la Resolución, en su artículo 2.5.1) para la valoración del primer plan de euskera. En consecuencia, donde dice «Leire Sagastizabal Bidarte» dirá «Maitane Izagirre Zubimendi».

***Segundo.–*** La presente Resolución surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Resolución que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación den el Boletín oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de noviembre de 2008.

Por ausencia del Viceconsejero de Política Lingüística, en conformidad con la Disposición Adicional Primera del Decreto 25/2006, de 14 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura.

El Director de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas,
JOSEBA LOZANO SANTOS.